

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

3386

112/2023 DEKRETUA, uztailaren 11koa, Garraio Plangintzaren zuzendaria kargutik kentzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.j), 26.6 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2023ko uztailaren 11n egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Iván Pedreira Lanchas jauna Garraio Plangintzaren zuzendari kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2023ko uztailaren 18an izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko uztailaren 11n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.